ri buruzko otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren aldi baterako 2. xedapenaren arabera betetzen direnean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Berritzeguneetako lanpostuetan aldi baterako adskribitutako pertsonalak ezin izango du parte hartu hizkuntza eskakizunak lortzeko, epe luzeko eta orduak liberatzea berekin dakartzaten euskalduntze-ikastaroetan. Euskalduntzeko beste ikastaro batzuetan parte hartzeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak onespena eman dezake Berritzegunearen zuzendaritzak proposatuz gero eta Lurralde arduradunaren on iritzia edukiz gero.

Bestalde, dagokion Berritzeguneko zuzendaritzaren onespen gabe, eta Pedagogi Berrikuntzarako lurralde buruaren on iritzirik gabe ezingo du orduak liberatzea berekin dakartzaten prestakuntza ikastaroetan parte hartu ere.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

midad con lo dispuesto en el artículo 9 de esta Orden y la disposición transitoria 2.ª del Decreto 15/2001, de 6 de febrero, de creación de los Berritzegunes.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El personal adscrito temporalmente en plazas de Berritzegunes no podrá participar en cursos de euskaldunización de larga duración que conlleven liberación horaria y estén dirigidos a la obtención de perfiles lingüísticos. Para otros cursos de euskaldunización la Dirección de Innovación Educativa podrá autorizar la participación a propuesta de la Dirección del Berritzegune correspondiente y el Visto Bueno del responsable Territorial.

Así mismo tampoco podrán participar en cursos de formación que conlleven liberación horaria sin la autorización expresa de la Dirección del Berritzegune correspondiente y el visto bueno del Responsable Territorial de Renovación Pedagógica.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de marzo de 2001.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## Zk-1831

AGINDUA, 2001eko martxoaren 27koa, unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) funtzionamendua eta antolamendua arautzen duena.

Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) sorkuntza arautzen duen otsailaren 6ko 14/2001 Dekretuak oinarrizko arau esparrua finkatzen du zerbitzu berri hori garatu ahal izateko bertan. Zerbitzu horren oinarrizko xede da unibertsitateaz kanpoko irakas-sistemaren ebaluaketa orokorra egitea, hezkuntza ikerketa sustatzea unibertsitateaz kanpoko arloan eta hezkuntza arloari lotutako dokumentazio eta baliabideen zerbitzua edukitzea.

Erakunde hau laguntza zerbitzu gisa egituratzen da eta bere jardute esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa da. Erakundeak ebaluazio, ikerketa eta dokumentazio arloan garatu beharreko egitekoak ere finkatzen dira dekretu berean. Ebaluazioaren arloan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetarako edota berariazko arloetarako

## N°-1831

ORDEN de 27 de marzo de 2001, por la que se regula el funcionamiento y organización del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa no universitaria (IVEI).

El Decreto 14/2001, de 6 de febrero, de creación del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa no universitaria establece el marco normativo básico en el que se ha de desarrollar este nuevo servicio que tiene por finalidad básica realizar la evaluación general del sistema educativo no universitario, promover la investigación educativa en el ámbito no universitario y mantener un Servicio de documentación y de recursos relacionados con el ámbito educativo.

Este Instituto se configura como un servicio de apoyo a la educación cuyo marco de actuación es el de la CAPV En el mismo decreto se determinan las funciones que ha de desarrollar este Instituto en el campo de la evaluación, en el campo de la investigación y en el campo de la documentación. En el campo de la evalua-

ebaluazio sistemak eta adierazleak egitea sartzen da, bai eta INCEn parte hartzea ere. Ikerketa arloan erakundearen egitekoa da hezkuntzaren kalitatea hobetzeko ikerketa eta azterketak egitea, kalitatearen adierazleen proposamena egitea eta maila ez unibertsitarioetan esperimentazio prozesuan parte hartzea. Azkenik, dokumentazio arloan, erakundearen egitekoa da hezkuntzari buruzko informazioa eta dokumentazioa jaso, aztertu eta gaurkotzea, bai eta eskura dauden baliabide didaktikoak ere.

Funtzio edo egiteko hauek bete ahal izateko, sortzezko dekretuak egitura organiko bat finkatzen du menpekotasun organikoa eta gobernu organoak zehazteko, hau da, Zuzendaritza-kontseilua, Batzorde Zientifikoa eta Zuzentza Taldea. Erakunde horren plantila eta lanpostuak ere jasotzen dira unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) sorkuntza dekretuan.

Agindu honen xede da unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) funtzionamendua eta barruko antolamendua arautzea eta lanpostu bakoitzari dagozkion egitekoak zehaztea.

Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Honako lan-talde hauen bidez burutuko ditu bere proiektuak ISEIk:

a) Metodoen taldea
b) Didaktika taldea
c) Psikopedagogia taldea
d) Eskola antolamendurako taldea

*2. artikulua.–* Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen plantila ISEI sortzen duen otsailaren 6ko 14/2001 Dekretuak bere 15. artikuluan diona izango da.

*3. artikulua.–* Honako hauek dira taldeko koordinatzaileen egitekoak:

a) Taldeari egiteko eskatzen zaion proiektuen zuzendaritza hartzea bere gain; eta hori, beste lan-taldeen lankidetzarekin, beharrezko denean.

b) Beste lan-talde batzuen proiektuetan parte hartzea, eskatzen zaion guztietan.

c) ISEIren jarduera koordinatzea Zerbitzu Orokor eta Lurralde Zerbitzuekin, kasuan kasuko zuzendaritzek onartutako jarraibideen arabera, eta finka daitezen lankidetza organoetan parte hartzea.

ción se incluyen la elaboración de sistemas e indicadores de evaluación para las diferentes enseñanzas no universitarias y/o ámbitos específicos así como la participación en el INCE. En el campo de la investigación se encomienda al Instituto la realización de investigaciones y estudios que promuevan la mejora de la calidad de la enseñanza, la propuesta de indicadores de calidad y la participación en proceso de experimentación en los niveles no universitarios. Finalmente en el campo de la documentación se asigna al Instituto la función de la recogida, análisis y actualización de la información y documentación educativa así como de los recursos didácticos disponibles.

Para llevar adelante estas funciones el decreto de creación establece una estructura orgánica en la que se determinan tanto su dependencia orgánica como los órganos de gobierno: el Consejo Rector, el Comité Científico y el Equipo Directivo. Así mismo el Decreto 14/2001, de 6 de febrero, de creación del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación (IVEI) determina la plantilla con los puestos de trabajo asignados a este Instituto.

La presente tiene como objetivo regular el funcionamiento y la organización interna de este Instituto Vasco de Evaluación e Investigación (IVEI) concretando las funciones que se asignan a cada uno de los puestos de trabajo.

En consecuencia

DISPONGO:

*Artículo 1.–* El Instituto Vasco de Evaluación e Investigación educativa no universitaria llevará a cabo sus proyectos con los siguientes Equipos de trabajo:

a) Equipo de métodos
b) Equipo de didáctica
c) Equipo de psicopedagogía
d) Equipo de organización escolar

*Artículo 2.–* La plantilla del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación educativa no universitaria será la que se dispone en el artículo 15 del Decreto 14/2001, de 6 de febrero, de creación del IVEI.

*Artículo 3.–* Son funciones de los coordinadores y coordinadoras de equipo:

a) Asumir la dirección de los proyectos que se le encomienden a su Equipo, contando cuando sea preciso, con la colaboración de otros Equipos.

b) Colaborar en los proyectos de otros Equipos, siempre que se le requiera.

c) Coordinar la actuación del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación educativa con los Servicios Centrales y Territoriales, de acuerdo con las directrices aprobadas por las correspondientes Direcciones, así como participar en los órganos de colaboración que se establezcan.

d) Laguntza ematea zuzendariari ISEIren eta langileen kudeaketan.

e) Arauz ematen zaizkion gainerakoa.

*4. artikulua.–* Honako hauek dira Metodoen taldearen egitekoak:

a) Ezaguera teknikoak ematea ISEIren proiektuak burutzeko.

b) Kasuan kasuko lan teknikoak egitea.

c) Proiektuak burutzeko beharrezko diren baliabideak kudeatzea.

d) Arauz ematen zaizkion gainerako egitekoak.

*5. artikulua.–* Honako egiteko hauek beteko dituzte espezialisten gainerako taldeek:

a) Ikerketak egitea, bere arloko teoria eta esperientzia garrantzitsuenak eskura izanik.

b) Ebaluazio eta ikerketa proiektuen diseinuan parte hartzea, bai eta proiektuen azken txostena egitean ere.

c) Proiektuekin zerikusia duten proba, galdeketa, txosten, orientabide, proposamen didaktiko, curriculum eta irakasleen prestakuntzarako materialak gauzatzea.

d) Bere arloko curriculum materialak eta baliabide didaktikoak aztertzea eta horiei buruzko informazioa prestatzea.

e) Irakasleen prestakuntzan laguntzea, programak diseinatu eta ISEIk sustatzen dituen ebaluazio edota ikerketa proiektuei dagozkien prestakuntza jardueretan parte hartuz.

f) Arauz ematen zaizkion gainerako egitekoak.

*6. artikulua.–* Talde bakoitzeko tekniko eta adituek proiektuetan ematen zaizkien egitekoak burutu beharko dituzte, bai eta agintzen zaizkien beste batzuk ere, kide diren taldeko arduradunaren ikuskaritzapean taldeko gainerakoen lankidetzarekin.

*7. artikulua.–* Zuzendaritza-kontseiluak onetsitako proiektu bakoitza burutzeko, zuzendariak arduradun bat izendatuko du, bere ezaugarriak eta gai nagusia direla-eta, oro har, proiektuarekin zerikusirik handiena duen talde-koordinatzailea izango dena.

*8. artikulua.–* Proiektuaren arduradunak hasierako proiektua zehaztu eta garatu, denbora zein egitekoen aldetik bere burutzapena planifikatu, burutzapen prozesuaren jarraipena egin eta azken txostenaren zirriborroa gauzatuko ditu. Egiteko horiek burutzeko, eta ISEIko zuzendariak onetsi ondoren, proiektua behar be-

d) Colaborar con el Director o Directora en la gestión del Instituto y del personal.

e) Cualquiera que se le atribuya reglamentariamente.

*Artículo 4.–* El Equipo de métodos desempeñará las siguientes funciones:

a) Aportar los conocimientos técnicos para la ejecución de los proyectos del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación educativa no universitaria.

b) Realizar las tareas técnicas correspondientes.

c) Gestionar los medios para llevar a cabo los proyectos.

d) Cualquiera que se le atribuya reglamentariamente.

*Artículo 5.–* Los demás Equipos, formados por Especialistas, realizarán las siguientes funciones:

a) Realizar investigaciones contando con las teorías y experiencias más relevantes en su campo.

b) Participar en el diseño de los proyectos de evaluación e investigación y en la elaboración del informe final de los proyectos.

c) Elaborar las pruebas, cuestionarios, informes, orientaciones, propuestas didácticas, materiales curriculares y de formación del profesorado relacionados con los proyectos.

d) Analizar los materiales curriculares y los recursos didácticos de su campo y elaborar la información sobre los mismos.

e) Colaborar en la formación del profesorado diseñando programas y participando en la ejecución de actividades formativas relacionadas con los proyectos de evaluación y/o investigación promovidos desde el Instituto Vasco de Evaluación e Investigación educativa no universitaria.

f) Cualquiera que se le atribuya reglamentariamente.

*Artículo 6.–* Los técnicos/as y especialistas de cada equipo realizarán las tareas que se les asignen en los distintos proyectos, así como otras tareas que se les encomienden, bajo la supervisión del coordinador o coordinadora del equipo al que pertenezcan con la colaboración del resto del equipo.

*Artículo 7.–* Para la ejecución de cada uno de los proyectos aprobados por el Consejo Rector, el Director o Directora designará un responsable que, normalmente, será el Coordinador/a del Equipo que tanga más relación con el proyecto, por sus características y su tema principal.

*Artículo 8.–* El responsable de un proyecto concretará y desarrollará el proyecto inicial, planificará su ejecución, tanto en tiempos como en la asignación de tareas, llevará el seguimiento del proceso de ejecución y elaborará el borrador del informe final. Para el desarrollo de estas tareas, y tras la aprobación del Director/a

zala garatzeko egokiak diren ISEIko tekniko eta adituak izango ditu. Proiektuen arduradunek proiektuaren fase desberdinen berri emango diote ISEIko zuzendariari.

*9. artikulua.*– Ebaluazio proiektuetan, ikuskatzaile nagusiak izendatzen dituen hezkuntza ikuskatzaileak izan ahalko ditu arduradunak, hark finkatzen dituen baldintzetan.

*10. artikulua.*– Ikerketa proiektuetan, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatzen dituen Berritzeguneetako aholkulariak izan ahalko ditu arduradunak, hark finkatzen dituen baldintzetan.

*11. artikulua.*– ISEIko zuzendariak Batzorde Zientifikoko buruari proiektu bakoitzaren arduradunaren izena jakinaraziko dio, bai eta burutuko den proiektuaren zehaztapena ere, proiektuaren garapenean eta azken txostena egitean ezagutu eta aholkularitza emango duen batzorde horretako pertsona izendatu dezan.

*12. artikulua.*– ISEIko zuzendariaren egitekoa izango da Zuzendaritza-kontseiluari aurkeztea egindako proiektuei buruzko azken txostena, egindako prozesuari eta erabilitako tresnei buruzko informazioa, egindako analisia eta ateratzen diren proposamenak jasoko dituena.

*13. artikulua.*– Zuzendaritza-kontseilua bere kontseilu buruak deituko du gutxienez urtean bitan, hain zuzen, ikasturtearen hasieran eta amaieran, eta beharreko jotzen duen guztietan.

*14. artikulua.*– Batzorde Zientifikoko burua Hezkuntza sailburuordeak izendatuko du batzorde horretako kideen artetik, eta berak proposatuta. Batzorde Zientifikoa batzordeburuak deituko du urtean bitan gutxienez, hain zuzen, ikasturtearen hasieran eta amaieran, eta beharrezko jotzen duen guztietan, ISEIko zuzendariak hala eskatuta.

*15. artikulua.*– ISEIri dagozkien funtzioak EAEko irakasleen kidegokoak eta eskalakoak diren funtzionarioek edo lan-pertsonalak beteko dituzte, Zerbitzu horretako Lanpostuen Zerrendari dagokion Dekretuan plaza bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen dituztenek hain zuzen.

*16. artikulua.*– ISEIren sorkuntza arautzen duen otsailaren 6ko 14/2001 Dekretuaren 15. artikuluan zerrendatutako lanpostuak Hezkuntza Administrazioak deitutako merezimendu-lehiaketa bidez beteko dira, Zuzendariaren lanpostua —Agindu honen 7. artikuluak arautzen duena— izan ezik, Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoak, bere 33. artikuluan arautzen duen arabera (otsailaren 25eko EHAA).

*17. artikulua.*– Aipatutako Legea garatuz, Hezkuntza Sailak pertsonalak burututako lanaren ebaluazioa egingo du, bide emateko horrelako zerbitzuen lanpostuetan epe-mugarik gabe jarraitzeko, betiere, lanpos-

del IVEI, contará con los técnicos/as y especialistas del IVEI que sean adecuados para el buen desarrollo del Proyecto. El responsable de un proyecto dará cuenta al Director/a del IVEI del desarrollo de las distintas fases del proyecto.

*Artículo 9.*– En los proyectos de evaluación, el responsable podrá contar con los Inspectores e Inspectoras de Educación que designe el Inspector/a General, en las condiciones que éste determine.

*Artículo 10.*– En los proyectos de investigación, el responsable podrá contar con los/as asesores/as de los Berritzegunes que asigne la Directora de Innovación Educativa, en las condiciones que ésta determine.

*Artículo 11.*– El Director/a del IVEI comunicará al Presidente del Comité Científico el nombre del responsable de cada proyecto así como la concreción del proyecto que se va a llevar a cabo, para que designe a la persona de dicho Comité que va a conocer y asesorar en el desarrollo del proyecto y la elaboración del informe final.

*Artículo 12.*– Corresponde al Director/a del IVEI presentar al Consejo rector el informe final de los proyectos realizados, en el que se incluirá una información del proceso seguido y los instrumentos utilizados, el análisis realizado y propuestas que se extraen.

*Artículo 13.*– El Consejo Rector será convocado por su Presidente al menos dos veces al año: al inicio y a la finalización del curso escolar y siempre que lo considere necesario.

*Artículo 14.*– El Presidente del Comité Científico será nombrado por el Viceconsejero de Educación de entre los miembros de dicho Comité y a propuesta de éste. El Comité Científico será convocado por su Presidente al menos dos veces al año: al inicio y a la finalización del curso escolar y siempre que lo considere necesario y a petición del Director/a del IVEI.

*Artículo 15.*– Las funciones propias del IVEI se realizarán por funcionarios y funcionarias pertenecientes a los cuerpos y escalas docentes de la CAPV que cumplan los requisitos establecidos para cada una de las plazas en el Decreto 27/2001, de 13 de febrero, de Relación de Puestos de Trabajo de dicho Servicio.

*Artículo 16.*– Los puestos de trabajo relacionados en el articulo 15 del Decreto 14/2001, de 6 de febrero, por el que se regula la creación del IVEI, con la salvedad del puesto de Director/a que se regula en el artículo 7 de esta Orden, se cubrirán por concurso de méritos convocado por la Administración educativa, tal y como se regula en el artículo 33 de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV de 25 de febrero).

*Artículo 17.*– En desarrollo de la citada Ley el Departamento de Educación evaluará el trabajo realizado para permitir el desempeño de puestos en estos servicios con carácter indefinido, siempre que se considere

tuari lotutako funtzioak jarraitzea beharrezkotzat jotzen denean.

*18. artikulua.–* ISEIko behin betiko pertsonalak irakaskuntzan jardun ahal izango du berriro berak eskatutako zerbitzu-eginkizunak betetzeko. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak destinoa duen zonan zerbitzu-eginkizunak bete ahal izateko modua aurkituko du.

*19. artikulua.–* ISEIko langileen aldi baterako ordezkapenak lanpostuen kasuan kasuko deialdietan arautuko dira. Ordezkapen horiek kasu jakin batzuetan eskaini ahal izango zaizkie, lanpostuaren ezaugarrien eta ordezkapenaren iraupenaren arabera, betekizunak bete arren zerbitzu horietan lanposturik lortu ez duten irakasle funtzionarioei.

*20. artikulua.–* Agindu honen 9. artikuluan eta ISEI sortzezko otsailaren 6ko 14/2001 Dekretuaren xedapen iragankorretako bigarrenean xedatutakoaren arabera, ISEIko lanpostuak betetzen direnean jarriko da jardunean ISEI.

XEDAPEN GEHIGARRIA

ISEIko lanpostuetan aldi baterako adskribitutako pertsonalak ezin izango du parte hartu hizkuntza eskakizunak lortzeko, epe luzeko eta orduak liberatzea berekin dakartzaten euskalduntze-ikastaroetan. Euskalduntzeko beste ikastaro batzuetan parte hartzeko, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaritzak onespena eman dezake, Berritzegunearen zuzendaritzak proposatuz gero eta Lurralde buruaren on iritzia edukiz gero.

Bestalde, Hezkuntza sailburuordearen on iritzirik gabe ezingo du orduak liberatzea berekin dakartzaten prestakuntza ikastaroetan parte hartu ere.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

necesaria la continuidad de las funciones ligadas al puesto de trabajo.

*Artículo 18.–* El personal con carácter indefinido del IVEI podrá volver a la docencia en Comisión de Servicios a solicitud propia. El Departamento de Educación, Universidades e Investigación buscará los medios para que pueda acceder a una Comisión de servicios en la zona en la que está destinado.

*Artículo 19.–* Las sustituciones temporales del personal del IVEI se regulará en las convocatorias de plazas, pudiéndose ofertar dicha sustitución en determinados casos, en función de las características del puesto y de la duración de la sustitución, a los funcionarios docentes que cumpliendo los requisitos no hubieran obtenido plaza en dichos servicios.

*Artículo 20.–* El IVEI entrará en funcionamiento en la fecha en que los puestos de trabajo correspondientes a los mismos sean provistos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 9 de esta Orden y la disposición transitoria 2.ª del Decreto 14/2001, de 6 de febrero, de creación del IVEI.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El personal adscrito temporalmente en plazas del IVEI no podrá participar en cursos de euskaldunización de larga duración que conlleven liberación horaria y estén dirigidos a la obtención de perfiles lingüísticos. Para otros cursos de euskaldunización la Viceconsejería de Educación podrá autorizar la participación a propuesta de la Dirección del IVEI.

Así mismo tampoco podrán participar en cursos de formación que conlleven liberación horaria sin la autorización expresa de la Viceconsejería de Educación.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de marzo de 2001.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.